

Testua eta marrazkiak: **JUDITH KERR**
Itzulpena: **MANU LOPEZ GASENI**

Azal gogorrez koadernatua. 22x28 cm.
32 orrialde. Marrazkiak koloretan.
Hizkuntza hauetan:

- Euskara: "Meriendatzera etorri zen tigrea"
Kalandraka-Pamiela. ISBN 978-84-7681-644-8
 - Gaztelania: "El tigre que vino a tomar el té"
Libros para Soñar. ISBN 978-84-8464-739-3
 - Galego: "O tigre que veu tomar o té"
Tras os montes. ISBN 978-84-8464-738-6
 - Katalana: "El tigre que va venir a berenar"
Kalandraka-Hipòtesi. ISBN 978-84-937469-5-7
 - Portugeses: "O tigre que veio tomar chá"
Livros para Sonhar. ISBN 978-989-8205-47-6
- Salneurria: 15 €

MERIENDATZERA ETORRI ZEN TIGREA



... Sofiak atea zabaldu zuen, eta tigre marradun iletsu handi bat zen.

Tigreak esan zuen: "Barkatu, baina oso gose naiz. Meriendatu nezake zuekin?"

Sofiaren amatxok esan zuen: "Bai, noski, sartu, sartu"....

"Meriendatzera etorri zen tigrea" herri askotan famatuen, baloratuen eta salduenetariko da Albuma, 1968an argitaratua lehen aldiz, irakurle belaunaldi asko hezi dituen gaur eguneko klasiko bat bihurtu da. Kontakizun bikaina da, ozenki irakurria izateko zein era autonomoan irakurtzeko. Judith Kerr-ek alaba txikira zoorera eraman eta tigre gosetiaren istorioa askotan kontatu ondoren idatzi zuen liburu hau. Hasierako ustekabe bat du abiapuntu, atean joka dabilena ez dela pertsona bat baizik eta tigre bat dela konturatzean. Sofiak eta haren amak adetasun handiz egiten dute anfitrioi lana, gonbidatu bereziak tea ez ezik etxeko jaki guztiak eta kanilako ur guztia ere irensten dituen bitartean.

Testuaren dohainen artean honako hauek azpimarra daitezke: egitura elkarrizketatua, eskema errepikakorra eta tigre gosetiak jaten dituen elikagaien zerrendaketa; gainera, ilustrazioen estiloa klasiko eta figuratiboa da, familia- eta etxe-eszena askorekin.

- **Tematika:** tigre baten bisitari buruzko istorio surrealista
- **Gomendatutako adina:** 7 urtetik aurrera
- **Alderdi azpimarragarriak:** egungo haur eta gazte literaturako klasiko bat, ilustrazio klasiko eta figuratiboak
- **Zehar-lerroak:** familia, etxea, abegitsua izatea, giza itxurako animaliak

JUDITH KERR (Berlin, 1923)

Naziek boterera eskuratu eta denbora gutxira, Judith Kerr eta judutar jatorriko haren familia Alemania utzi eta Suitzara joan ziren lehenbizi, gero Frantziara joan ziren eta, handik, Erresuma Batura. Han, Arte ikasketak amaitu zituen eta britainiar herritartasuna lortu zuen. Literaturan, margogintzan eta ilustraziogintzan jarduten hasi aurretik, Gurutze Gorrian lan egin zuen II. Mundu Gerraren garaian. Telebista-gidoigilea ere izan zen BBC katean. Haurrentzako zenbait lan idatzi zuen, eta baita eleberrri autobiografikoak ere, erbesteko bizimodua eta gerra amaitutakoan Berlinerako itzulera kontatuz "Deutscher Jugendliteraturpreis" Saria jaso zuen 1974an "Hitlerrek untxi arrosa lapurtu zuenean" lanagatik.

